

IKASLEEN KONTINGENTZIA PLANAREN LABURPENA

1. IKASTETXEKO SARRERA ETA IRTEERAK

Ikastetxeko eremuan musukoa nahitaez erabili beharko da.

Sarrera leku desberdinetik egingo da mailaren arabera.

Eskuak desinfektatu beharko dituzte ikastetxean sartu aurretik.

Ikastetxeko atari nagusian ezin da inor geratu. Autobusetik jaitsi ahala, atzeko patioan zain egonen dira ikastetxera sartzeko garaia izan arte. 1,5 metroko distantzia mantendu eta musukua jantzita.

Banakako erantzukizunari helduz, ikastetxera joan aurretik, etxean bertan tenperatura hartu behar da.

Norbaitek sukarra izango balu, beheko solairuan egokitu den gelara eramango da, irakasle baten ardurapean. Gurasoak ikasleak jasotzeko deituko dira.

Ikastetxe sarreran eta gela bertan, gel hidroalkoholikoa izango dute eskuragarri.

Eskailetertan igo eta jaitsi norberaren eskuinetik egingen dute, banaka, distantzia mantenduz eta ibilbidea jarraituz.

Ikasleak era mailakatuan jaitsiko dira bidean denborarik galdu gabe txandak errespetatuz. Ate nagusitik aterako dira eta zuzenean dagokien autobusera igoko dira edo eta garraiatuak ez direnak oinez abiatuko dira etxera.

✓ Ikastetxeak araututako orduaz haratagoko sarrera-irteerak

Edozein arrazoiengatik beranduago iristen diren ikasleek Idazkaritzatik pasa beharko dute, tutoreek aldeztu aurretik jakinarazita.

Ikastetxera iristean, gelan sartu aurretik eskuak gel hidroalkoholikoarekin garbituko dituzte.

2. JANGELA

Pilaketak saihesteko, sarrera mailakatu izango da. Jantokitik ere mailakatu aterako dira.

Jantokiko langile guztiek musukoa erabiliko dute.

Ikasleak musukoa jantzita sartu eta irtengo dira.

Sarrera-irteeretan eskuak garbituko dituzte.

Kutsatzeko arriskua saihesteko, mahai berean gela edo maila bereko taldeak izatea lehenetsiko da.

Ikasle bakoitzak mahai eta kokagune bera erabiliko du beti.

Mahai bakoitzean bertan bazkalduko duten ikasleen kokalekua ikusgai jarriko da.

3.- IKASGELAK

Gelaren neurriak ahalbidetzen badu, 1,5 metroko distantzia mantenduko da lagunen artean.

Ikasle guztiak bere musukoaz arduratuko dira eta erabili beharko dute nahitaez.

Ahal den guztietan eserleku bera erabiliko du. Ikasle bakoitzak bere mahai eta aulkia izango du.

Ikasleek beraien eskola-materialak ezin dute eta ez dituzte konpartituko.

Ikasleak gelara sartu atera bakoitzean eskuak garbitzeaz arduratuko dira.

Erabilera komuneko geletan jarduera hasi eta amaitu ondoren, ikasle bakoitzak erabilitakoa desinfektatuko du.

Gelak maiztasunez aireztatuko dira eta ahal dela leihoak irekita mantenduko dira. Jolasgaraian eta goizeko saioak bukatu ondoren, leihoak guztiz irekiko dira aireztatze sakona egiteko.

Klase-aldaketetan talde desberdinen arteko kontaktua saihesten saiatuko gara.

4. JOLASGARIAIAK

Jolas garaian, maila bakoitzari gune bat esleituko zaio. Gune hauek txandakatuko dira.

Atera eta sartu markatutako ibilbidetik eginen dute. Eskaileratan modu ordenatuan eta banako ibiliko dira. Maila bakoitza tokatu zaion eremuaren arabera atetik sartuko da. Kartelen bidez adieraziko da.

5. GARBIKETA

Garbiketako langile bat ordu batzuz goizez arituko da. Arreta berezia jarriko da bainugelak, eskudelak, etengailuak, heldulekuak eta erabilera komuneko ordenagailuak desinfektatzen.

Ikastorduak bukatu eta gero, egunero programa trinkoan definitutako garbiketa sakona burutuko da.

Gorputz Hezkuntzako saioen ondoren, ezingo da dutxarrik erabili. Aldagelak erabiltzeko, txandak eginen dira talde bakoitzean, pilaketak saihesteko.

Gela eta bestelako espazio guztietan gel hidroalkoholikoaren banagailuak edo jaboia egongo dira.

6. KOMUNAK

Gelako ordutegian komunera banaka joango dira. Ezingo dira inoiz ere klase artean komunera joan eta atsedendietan ezingo da komunera joan.

Komunetara banaka sartuko dira eta gehienez 2 ikasle elkartu ahal izango dira. Ikasleek eskuak sartu-irteeretan garbituko dituzte.

7. GAIXOTASUNA EDO GAIXOTASUNAREN SUSMOA

Ez dira bertaratuko, COVID-19a diagnostikatu zaielako isolatuta dauden ikasleak. Ikastetxera abisatuko da.

COVID-19arekin bateragarriak diren sintomak dituzten ikasleak etxean geratu beharko dira. Ikastetxea abisatuko da.

Beren etxeko norbaitek COVID-19aren diagnostikoa jaso badu, osasun agintariek esandakoaren arabera jokatu da. Berri emango diete eskolako agintariei eta seme edo alaba etxean mantendu beharko dute.

Ikasleren batek gaixotasun-sintomarik antzemanaz gero (37°C tik gorako sukarra, ez tul idorra, ez tarriko mina, arnasa hartzeko zailtasuna, usainik edo dastamenik eza), taldeko gainerako kideetatik isolatuko da. Familia deitu eta etxera eramanen dute. Familiak osasun- zentzura deitu beharko du eta bertan aztertuko da ikaslearen egoera. Balorazioa izan arte, pertsona hori isolatuta mantenduko da.



Eskola
Irakorraren
Ziurtagiria

Certificado
de Escuela
Sostenible

STEAM
euskadi



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAIA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Covid-19 duela diagnostikatu gero, berekin kontaktua izan duten pertsonak identifikatuko dira (lantaldeak ikasgelako taldea. Ikasgelako taldea eta/edo jarduera) eta osasun-agintariek esandakoaren arabera jokatu da.